

# Berriz, berriztagarriak



ULA IRURETAGOIENA

**E**gin berri dut. Euskal Autonomi Erkidegoko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialari alegazio herritarra sinatu eta igorri dut, Euskal Herria Bizirik plataformaren ekimena babestuz. Plataformak azpiegitura eta makro-proiektuen jarraipen zehatza egiten du, hauek landa eremuan duten ondorioak neurtzeko. Eta Eusko Jaurlaritza lantzen ari den dokumentu berria, parke eoliko eta eguzki-instalazioen kokapen posibleak aztertzen dituen, larria omen da, lokalizazio posible aunitzen aukera zabaltzen duelako.

Eolikoen etorreraren kezka piztu da. Azpeitian eta Zestoan herri mobilizazio garrantzitsua abian da eta Arabako Azazeta, Arkamo, Iturrieta, Labraza eta Aramaioko parkeen eraikuntzak bazterrak harrotu ditu. Eta gehiago etorriko dira. Europako funtsek norabide bat zehaztu dute eoliko eta eguzki-instalazioen alde eta eolikoen instalazioa geldiezina omen da. *As bestas* forma sarituak eolikoek landa eremuan sortutako egoera baten berri ematen du. Gurera ekarrita, landa lurra- ren egoera ikusita, nola uztartu energia berriztagarrien bidea eta dagoeneko zailtasun handiak dituen nekazaritza eta abeltzantzarrena? Zein inpaktu du herriko bizitzetan, nagusiki hirietara joango den energia “garbi” honek?

Alegazioa sinatu dut, energia berriztagarrien aferan ez dugulako lurralde bezala eztabaidarik zabaldu, eta hirigintzako dokumentu berriak eredu bat zehazten duelako: eskala handiko instalazioena. Zenbat energia behar dugu eta nola burutzen da kalkulua, egungo eskaera mantentzearekin? Komunitate energetikoen autokontsumoa auzoetan, nahikoa estudiantu al da? Eolikoen instalazioa gertu izateak energiaren kudeaketa publikoa eta demokratizazioa ahalbidetzen dituela esan da, baina landaren eta ingurumenaren babesarekin talka egiten badu, nola soluzionatzen da ekuazioa? Nola definitzen da onargarria den inpaktua? ●



## Turista ala diruduna

**LEIRE ARTOLA ARIN**

**U**dako oporraldiko “irteera operazioa” hasi da Euskal Herrian. Autoz, hegazkinez, bizikletaz, autokarabanaz, itsasontziz... baina kanpora, eta posible bada ahalik eta urrunen. Etxeko miseriak armairuan ezkutatu, maleta gurpilduna alboan hartu, eta “eguraldi ona” egiten duen tokiren batera alde egiteko dira oporrak, gehiengoari galdetuz gero. Noski, gehiengo hori da diru “inbertsio” edo “xahuketa” hori –nondik begiratzen den– egiteko gai den herritar multzoa.

Eta “irteera operazioa” orekatzeko edo, hona ere badatuz “bisitariak”. Autoz iristen dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoara etortzen diren turisten %67, eta garraio kolektiboaren kasuan, hegazkina da erabiliena (%17,5), Eusko Jaurlaritzako Ibilturren 2022ko udako datuen arabera. Azken hori da, hain zuzen, garraioberdiker kutsagarriena eta ingurumenerako kaltegarriena, gurutzatzearekin batera, Munduko Turismo Erakundeak eta Nazio Batuen Programak zehazten dutenez.

Atmosfair.de Alemaniako GKEak zehatz kalkulatu du zenbat karbono dióxido isurtzen den atmosferara hegazkin bidaia bakoitzeko: Bilbotik Mallorcara pertsonako 247 kilogramo CO<sub>2</sub>, Miarrizetik Erromara 577 kilogramo, eta Iruñetik Filipinetara 7.320 kilogramo pertsonako –ez hegazkineko–. Hemen arrakala: lehen klaseko hegaldien kasuan, bikoiztu baino gehiago egiten da kutsadura. *The Guardian* egunkariaren analisi baten arabera, distantzia luzeko hegaldi bakoitzak isurtzen duen CO<sub>2</sub>a da herrialde batzuetako pertsona bakarrak urte osoan isurtzen duen kopuru bera.

Beste kontu bat dira jet pribatuak. Uztaila hasieran *El Diario Vasco* egunkariaren albiste izan da Hondarribian 100.000 euroko jet pribatu bat lurreratu dela, “munduko garestiena”, New Yorketik zuzenean iritsia, “familia aberats” bat gura ekartzeko. 2022an Gipuzkoako aireportuak 913 hegaldi pribatu erregistratu zituen, orain arteko zifrarik altuena. “Turistifikazioa, elitizazioa eta kalte ekologikoa erakunde publikoen babesarekin eta DVren propagandarekin”, salatu du Bizilagunekin plataformak.

Nork egiten du kalte ekologikoa? Turistek? Multinazionalak? Geuk? Badago era jasangarrian bidaiatzeko modurik? Marka da gero, oporretan ere langile klasea klima aldaketaren eta turistifikazioaren arduradun sentitzea, aberaskumeak eta milioidunak jet pribatuak hartzen ari diren bitartean, egunpasak egiteko Donostiako su artifizialak ikustera edo Subijanaren Akelarre jatetxean mokadua egitera, helikopteroa atarian aparkatuta. ●